g) Contenido de los acuerdos adoptados y el resultado de las votaciones.

h) En su caso, las justificaciones que los/as miembros del Consejo hayan dado sobre el sentido de su voto.

3.- El acta será remitida a cada miembro del Consejo con la convocatoria de la sesión siguiente, donde deberá someterse a aprobación. El acta de cada sesión se aprobará al comienzo de la siguiente, incorporándose, en su caso, las rectificaciones oportunas.

4.- El/La Secretario/a podrá emitir certificación sobre los acuerdos específicos que se hayan adoptado, sin perjuicio de la ulterior aprobación del acta. En las certificaciones de acuerdos adoptados emitidas con anterioridad a la aprobación del acta se hará constar expresamente tal circunstancia.

## CAPÍTULO II

### LA COMISIÓN PERMANENTE DELEGADA

#### Artículo 18.- Constitución y composición.

1.- El Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social constituirá una Comisión Permanente con carácter delegado, cuya composición es la establecida en el artículo 8.1 del Decreto 204/1997, de 16 de septiembre.

2.- Actuará como Secretario/a de esta Comisión, con voz pero sin voto, un/a funcionario/a de la Dirección de Bienestar Social del Gobierno Vasco, que será designado por su Director/a.

#### Artículo 19.- Funciones.

Corresponden a la Comisión Permanente Delegada las siguientes funciones:

a) Preparar las sesiones del Pleno del Consejo mediante la realización de las siguientes actuaciones:

- Asesorar al/la Presidente/a del Consejo para la fijación del orden del día de las sesiones.

- Reunir la documentación necesaria con suficiente antelación a su celebración.



– Osoko Bilkuran aztertu beharreko gaietarako buruzko txostenak prestatzea, txosten horien prestateta beste batzorde bati ez badagokio behintzat.

b) Lurraldeetako nahiz Udaletako Gizarte Ongizaterako Kontseiluek azal diezazkieten gaiak Osoko Bilkurari edo dagokion batzordeari bidezko ondorioetarako jakinaraztea.

c) Kontseiluaren jarduerari buruzko urteko memoria prestatzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen egoerari buruzko urteko txostena prestatzea.

e) Kontseiluaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiak beteko direla zaintzea.

f) Osoko Bilkurak agintzen dizkion gaiak aztertzea, gai horien izapideak egitea eta, azkenik, ebaztea.

g) Osoko Bilkurak espreski batzordearen esku utz ditzan eginkizunak.

h) Erregelamendu honen artikuluetan edo aplikadizkiokeen arauetan agintzen zaizkion eginkizun guztiak.

#### **20. artikulua.** – Bilerak.

1.– Batzorde Iraunkor Delegatuaren bilerak ohikoak eta bereziak izan daitezke.

2.– Batzorde Iraunkor Delegatuak, hiruhilean behin, ohiko bilera bat egin beharko du derrigor.

3.– Batzorde Iraunkor Delegatuak bilera bereziak egin ditzake honako kasu hauetan:

a) Lehendakariak eskatuta.

b) Zortzi kidek eskatuta.

4.– Bilera berezia egiteko epea eskaria erregistratzen denetik kontaktzen hasita zortzi egun naturalekoa izango da gehienez.

#### **21. artikulua.** – Deialdia.

1.– Lehendakariak egingo du Batzorde Iraunkor Delegatuaren deialdia, zeina idatziz jakinaraziko baitzaie kide guztiei. Ohiko bilera bada, deialdia gutxienez bilera-eguna baino lau egun natural lehenago jakinarazi behar zaie kideei; bilera berezia bada, berriz, gutxienez bi egun baldiodun lehenago jakinarazi behar zaie deialdia.

2.– Bilera non, noiz eta zein ordutan egin behar den adierazi behar da deialdian, eta bilerako aztergai-zerrenda ere aditzera eman behar da. Deialdiarekin batera, aztertu beharreko gaietarako buruzko dokumentazio espezifikoak bidali behar da.

3.– Dena den, kide guztiak biltzen badira eta erabakia aho batez hartzen badute, Batzorde Iraunkor Delegatuaren eraketa baliozkoa izango da, nahiz deialdiaren baldintzak bete ez.

– Preparar los informes previos de los asuntos que habrán de ser tratados en el Pleno, salvo que correspondan a otra Comisión.

b) Remitir, a los efectos oportunos, al Pleno del Consejo o a las respectivas Comisiones aquellos asuntos que le hayan sido sometidos por los Consejos Territoriales o Municipales de Bienestar Social.

c) Elaborar la Memoria Anual explicativa de las actividades del Consejo.

d) Elaborar el Informe anual sobre el estado de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) Velar por el cumplimiento de los Acuerdos del Pleno del Consejo.

f) Estudiar, tramitar y resolver cuantas cuestiones le sean encomendadas por el Pleno.

g) Las que expresamente le delegue el Pleno.

h) Cualquier otra que le atribuya el resto del presente Reglamento o, en su caso, la normativa que le sea de aplicación.

#### **Artículo 20.** – Clases de sesiones.

1.– Las sesiones de la Comisión Permanente Delegada podrán ser ordinarias o extraordinarias.

2.– La Comisión Permanente Delegada se reunirá en sesión ordinaria, preceptivamente una vez cada trimestre natural del año.

3.– La Comisión Permanente Delegada podrá reunirse con carácter extraordinario en alguno de los siguientes supuestos:

a) A instancia de su Presidente/a.

b) Cuando así lo soliciten ocho de sus miembros.

4.– El plazo para la celebración de la sesión extraordinaria será de ocho días naturales como máximo a contar desde la fecha en que se registre la petición.

#### **Artículo 21.** – Convocatoria.

1.– La convocatoria de la Comisión Permanente Delegada se efectuará por su Presidente/a y será dirigida por escrito a todos sus miembros con una antelación mínima de cuatro días naturales respecto a la fecha de la sesión a convocar si fuere ordinaria, o de dos días hábiles si fuere extraordinaria.

2.– La convocatoria contendrá, junto con la indicación del lugar, fecha y hora de la reunión, el Orden del Día de la sesión, y vendrá acompañada de la documentación específica sobre los asuntos a tratar.

3.– En todo caso, quedará válidamente constituida la Comisión Permanente Delegada, aun cuando no se hubieren cumplido los requisitos de la convocatoria, cuando hallándose reunida la totalidad de sus miembros, lo acuerden por unanimidad.

**22. artikulua.**– Aztergai-zerrenda.

1.– Lehendakariak ezarriko du bileretako aztergai-zerrenda. Ohiko bileretan, lehendakariak, aztergai-zerrenda prestatu baino lehen, behar bezala aztertu beharko ditu Batzorde Iraunkor Delegatuko kideek gai jakin batzuk eztabaidatzeko egindako iradokizunak. Gutxienez Batzordeko sei kideek formalki eskatutako eztabaidagaiak, ordea, aztergai-zerrendan sartu beharko dira.

2.– Bilera bereziei dagokienean, bilera egitea eskatu duen alderdiak aurkeztutako eztabaidagai guztiak sartu beharko dira aztergai-zerrendan.

**23. artikulua.**– Quorum-a.

1.– Lehenengo deialdian Batzorde Iraunkor Delegatuaren eraketa baliozkoa izan dadin, gutxienez kideen erdiak bileran izan behar dira, eta haien artean lehendakaria egon behar da derrigor.

2.– Quorum hori lortzen ez bada, Batzorde Iraunkor Delegatua bigarren deialdian eratu da, lehenengo deialdiarentzat ezarritakoa baino ordubete geroago.

Batzorde Iraunkor Delegatua bigarren deialdian eratzeko, nahikoa izango da lau kide bertan izatea, baina, haien artean, lehendakaria egon behar da derrigor.

3.– Aurreko paragrafoetan ezarritako quorumak bileran osoan mantendu beharko dira.

**24. artikulua.**– Erabakiak hartzea.

1.– Bildutako kideen gehiengo soilaren aldeko botoaz hartuko dira Batzorde Iraunkor Delegatuaren erabakiak. Berdinketa egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du.

2.– Aztergai-zerrendatik kanpo geratzen diren eztabaidagaiak dagokienean:

a) Ohiko bilerako erabakia baliozkoa izango bada, Batzorde Iraunkor Delegatuko kide guztiak bildu beharko dira, eta gehiengo soilaren aldeko botoa beharko da.

b) Bilera berezietan ezingo da baliozko erabakirik hartu.

3.– Batzorde Iraunkor Delegatuko kideek erabakien kontrako botoa adieraz dezakete aktan; orobat, kontrako botoa emateko arrazoiak ere adieraz ditzakete.

4.– Hartutako erabakien berri eman beharko zaio Kontseiluaren Osoko Bilkurari.

**25. artikulua.**– Bileretako akta.

1.– Batzorde Iraunkor Delegatuaren bilera bakoi-tzean akta bat egingo da; idazkariak emango du akta horren fede, eta lehendakariaren oniritziak ere aktan agertu beharko du.

**Artículo 22.**– Orden del día.

1.– El orden del día de las reuniones será fijado por el/la Presidente/a. En las sesiones ordinarias las sugerencias de los/as miembros de la Comisión Permanente Delegada para tratar asuntos determinados serán debidamente ponderados por el/la Presidente/a antes de la elaboración del orden del día, si bien deberán ser incluidos en el mismo los asuntos que sean solicitados formalmente por, al menos, seis miembros de la Comisión.

2.– En las sesiones extraordinarias el orden del día deberá integrar la totalidad de los asuntos presentados por quien haya instado dicha sesión.

**Artículo 23.**– Quórum.

1.– El quórum para la válida constitución de la Comisión Permanente Delegada en primera convocatoria será de, al menos, la mitad de sus miembros, entre los cuales deberá necesariamente estar incluido el/la Presidente/a.

2.– Si no se alcanzare dicho quórum, la Comisión Permanente Delegada se constituirá en segunda convocatoria una hora después de la señalada para la primera.

Para la constitución de la Comisión Permanente Delegada en segunda convocatoria será suficiente la asistencia de cuatro miembros, entre los cuales deberá necesariamente estar incluido el/la Presidente/a.

3.– Los quórums establecidos en los párrafos precedentes deberán mantenerse durante toda la sesión.

**Artículo 24.**– Adopción de Acuerdos.

1.– Los acuerdos de la Comisión Permanente Delegada se adoptan por el voto favorable de la mayoría simple de los/as miembros presentes. En caso de empate, decide el voto de calidad del/la Presidente/a.

2.– En cuanto a los asuntos que se traten fuera del orden del día:

a) Tratándose de una sesión ordinaria la validez del acuerdo requerirá la presencia de todos los/as miembros de la Comisión Permanente Delegada y su adopción por la mayoría simple.

b) Tratándose de una sesión extraordinaria no podrá adoptarse validamente ningún acuerdo.

3.– Los/as miembros de la Comisión Permanente Delegada podrán hacer constar en acta su voto contrario a los acuerdos adoptados y los motivos que justifican su decisión.

4.– De los acuerdos adoptados se dará conocimiento al Pleno del Consejo.

**Artículo 25.**– Acta de las Sesiones.

1.– De cada sesión de la Comisión Permanente Delegada se levantará acta, bajo la fe del/la Secretario/a, y en la que figurará el visto bueno del/la Presidente/a.

2.- Honako xehetasun hauek adieraziko dira bilere-tako aktetan:

a) Bildutakoen izen-abizenak, bilerara justifikaturik agertu ez direnenak eta Erregelamendu honetako 8.h) eta 9.a) artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetara-ko justifikatu gabe agertu ez direnenak.

b) Bileraren tokiari eta denborari buruzko gorabeherak.

c) Bilera ohikoa ala berezia den, eta lehenengo ala bigarren deialdian egiten den.

d) Aztergai-zerrenda.

e) Aztertutako gaiak eta eztabaidagai nagusiak.

f) Lehendakariak zein gai proposatu dituen botoa emateko.

g) Hartutako erabakien edukia eta botazioen emaitzak.

h) Hala balegokio, Batzorde Iraunkor Delegatuko kideek beren botoaren gainean adierazitako arrazoiak.

3.- Akta Batzorde Iraunkor Delegatuko kide bakoitzari bidaliko zaio, hurrengo bileraren deialdiarekin batera, bilera horretan onartu beharko da- eta akta. Biler-a bakoitzeko akta hurrengo bileraren hasieran onartu-ko da, eta, behar izanez gero, zuzenketak egingo zaiz-ki aktari.

4.- Idazkariak erabaki espezifikoiei buruzko egiaz-tagiria egin dezake, gero akta onartu beharko bada ere. Akta onartu baino lehen hartutako erabakien egiazta-girietan zirkunstantzia hori jasota geratu beharko da.

### III. KAPITULUA BATZORDE IRAUNKOR SEKTORIALAK

#### 26. artikulua.- Sorrera.

Kontseiluaren Osoko Bilkuraren erabakiaz nahiz arauzko xedapenez, Batzorde Iraunkor Sektorialak era daitezke gai jakin batzuk berariaz aztertzeke.

#### 27. artikulua.- Osaketa eta eginkizunak.

1.- Kontseiluaren Osoko Bilkurak erabakiko ditu bere erabakiaz eratutako Batzorde Iraunkor Sektorialen osaketa eta eginkizunak.

2.- Arauzko xedapenez eratutako Batzorde Iraunkor Sektorialen osaketa eta eginkizunak arau horretan ezarriko dira.

3.- Kasu bietan, Batzorde Iraunkor Sektorialek osaketa parekidea izango dute: alde batetik, herri-administrazioetako ordezkariak egongo dira, eta, bestetik, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseilua osatzen duten erakundeak.

2.- Las actas de las sesiones recogerán:

a) Nombre y apellidos de los asistentes, ausentes que se hubiesen excusado y de los que falten sin excusar, a efectos de lo previsto en los artículos 8 h) y 9 a) de este Reglamento.

b) Circunstancias de lugar y tiempo de la sesión.

c) Carácter ordinario o extraordinario de la sesión y si se celebra en primera o en segunda convocatoria.

d) Orden del día de la sesión.

e) Asuntos que se examinen y puntos principales de las deliberaciones.

f) Propuestas sometidas a votación por el/la Presidente/a.

g) Contenido de los acuerdos adoptados y el resultado de las votaciones.

h) En su caso, las justificaciones que los/as miembros de la Comisión Permanente Delegada hayan dado sobre el sentido de su voto.

3.- El acta será remitida a cada miembro de la Comisión Permanente Delegada con la convocatoria de la sesión siguiente, donde deberá someterse a aprobación. El acta de cada sesión se aprobará al comienzo de la siguiente, incorporándose, en su caso, las rectificaciones oportunas.

4.- El/La Secretario/a podrá emitir certificación sobre los acuerdos específicos que se hayan adoptado, sin perjuicio de la ulterior aprobación del acta. En las certificaciones de acuerdos adoptados emitidas con anterioridad a la aprobación del acta se hará constar expresamente tal circunstancia.

### CAPÍTULO III LAS COMISIONES PERMANENTES SECTORIALES

#### Artículo 26.- Creación.

Para el tratamiento específico de determinadas materias podrán constituirse, por acuerdo del Pleno del Consejo o por disposición normativa, Comisiones Permanentes Sectoriales.

#### Artículo 27.- Composición y funciones.

1.- Las Comisiones Permanentes Sectoriales que se constituyan por acuerdo del Pleno del Consejo tendrán la composición y funciones que este mismo determine.

2.- Las Comisiones Permanentes Sectoriales que se constituyan por disposición normativa tendrán la composición y funciones que dicha norma establezca.

3.- En ambos supuestos su composición habrá de ser paritaria entre los representantes de las distintas Administraciones Públicas y las de las organizaciones componentes del Consejo Vasco de Bienestar Social.

IV. KAPITULUA  
BATZORDE TEKNIKO ESPEZIALIZATUAK

**28. artikulua.** – Eraketa, osaketa, helburuak eta funtzionamendua.

1.– Kontseiluaren Osoko Bilkurak dauka Batzorde Tekniko Espezializatuen eraketaren, osaketaren, helburuen eta funtzionamendu-arauen gaineko aginpidea.

2.– Batzorde Tekniko Espezializatuak modu iraunkorrean edo koiunturaren arabera eratu ahal izango dira.

V. KAPITULUA  
LEHENDAKARITZA

**29. artikulua.** – Lehendakaria.

1.– Gizarte zerbitzuetako eskuduntza daukan saileko sailburua izango da Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluko lehendakari.

Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluko lehendakaria Osoko Bilkurako eta Batzorde Iraunkor Delegatuko buru izango da.

2.– Kontseiluko kide bat izango da Batzorde Iraunkor Sektorialeko lehendakari; Osoko Bilkurak edo batzordeak era ditzan arauzko xedapenak erabakiko du zein kideri dagokion lehendakari izatea.

3.– Kontseiluko kide bat izango da Batzorde Tekniko Espezializatuakoko lehendakari; Osoko Bilkurak erabakiko du zein kideri dagokion lehendakari izatea.

**30. artikulua.** – Eskuduntzak.

Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluko lehendakariaren eskuduntzak honako hauek dira:

- a) Kontseiluaren ordezkari izatea.
- b) Kontseiluaren jarduerak zuzentzea.
- c) Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bileren deialdia egitea eta bilera horietako buru izatea; bilera horiek behar bezala gobernatzeko jarraibide orokorrak prestatzea; eta eztabaidak moderatzea.
- d) Erregelamendu honetan ezarritako prozedurari jarraiki, Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkor Deleatuaren bileretako aztergai-zerrenda adieraztea.
- e) Bileretako aktak sinaduraren bidez berrestea, erabakiak igortzeko eta argitara emateko agintzea, eta erabakiak betearaztea.
- f) Kontseiluaren izenean erakundeetara, organismoetara, entitateetara, agintariengana eta gizabanakoengana jotzea.
- g) Erregelamendu hau betetzea eta betearaztea, eta Osoko Bilkurari zalantzak interpreta ditzan eta aipatu gabe utzi diren alderdiak Erregelamenduan sar ditzan proposatzea.

CAPÍTULO IV  
LAS COMISIONES TÉCNICAS ESPECIALIZADAS

**Artículo 28.** – Creación, composición, fines y funcionamiento.

1.– La creación, composición, fines y normas de funcionamiento de las Comisiones Técnicas Especializadas son competencia del Pleno del Consejo.

2.– Las Comisiones Técnicas Especializadas podrán ser constituidas de modo permanente o coyuntural.

CAPÍTULO V  
LA PRESIDENCIA

**Artículo 29.** – Presidente/a.

1.– El/La Presidente/a del Consejo Vasco de Bienestar Social será el/la Consejero/a del Departamento competente en materia de servicios sociales.

El/La Presidente/a del Consejo Vasco de Bienestar Social presidirá el Pleno y la Comisión Permanente Delegada.

2.– La Presidencia de las Comisiones Permanentes Sectoriales corresponderá al/la vocal del Consejo que determine el Pleno o la disposición normativa que las constituya.

3.– La Presidencia de las Comisiones Técnicas Especializadas corresponderá al/la vocal del Consejo que determine el Pleno que las constituya.

**Artículo 30.** – Competencias.

El/La Presidente/a del Consejo Vasco de Bienestar Social tiene atribuidas las siguientes competencias:

- a) Ostentar la representación del Consejo.
- b) Dirigir las actuaciones del Consejo.
- c) Convocar y presidir las sesiones del Pleno y de la Comisión Permanente, elaborar las directrices generales para el buen gobierno de las mismas y moderar el desarrollo de los debates.
- d) Formular el orden del día de las sesiones del Pleno y de la Comisión Permanente Delegada, de acuerdo con el procedimiento establecido en el presente Reglamento.
- e) Refrendar con su firma las actas de las sesiones, ordenar la remisión, publicación de los acuerdos, y disponer su cumplimiento.
- f) Dirigirse en nombre del Consejo a instituciones, organismos, entidades, asociaciones, autoridades y particulares.
- g) Cumplir y hacer cumplir este Reglamento, proponiendo al Pleno su interpretación en los casos de dudas y su integración en los de omisión.

h) Bai Legean, bai Erregelamendu honetan -dela lehendakariari dagozkionak, dela Kontseiluaren Osoko Bilkurak beraren esku utzi dituelako- agintzen zaizkion eginkizun guztiak, bai eta, oro har, Erregelamendu honen beste organo batzuei agintzen ez dizkienak ere.

VI. KAPITULUA  
LEHENDAKARIORDETZA

**31. artikulua.** - Lehendakariordea.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Arazoetarako sailburordeari dagokio Kontseiluaren Osoko Bilkurako eta Batzorde Iraunkor Delegatuko lehendakariorde izatea.

**32. artikulua.** - Eskuduntzak.

Lehendakariaren kargua hutsik badago, edo lehendakaria gaixotzen bada edo kanpoan bada, lehendakariordeak beteko ditu haren eginkizun guztiak.

VII. KAPITULUA  
IDAZKARITZA

**33. artikulua.** - Idazkaria.

1.- Gizarte zerbitzuetako eskuduntza daukan saila ordezkatzeko duen kideari dagokio Kontseiluaren Osoko Bilkurako idazkari izatea. Sailburuak izendatuko du kide hori.

Idazkariak bileretan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango baitu.

2.- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizate Zuzendaritzako funtzionario batek egingo ditu Batzorde Iraunkor Delegatuko idazkari-lanak. Gizarte Ongizate zuzendariak izendatuko du funtzionarioa, zeinak bilereetan hitz egiteko eskubidea izango baitu, baina botoa emateko eskubiderik ez.

**34. artikulua.** - Eskuduntzak.

1.- Kontseiluaren Osoko Bilkurako idazkariaren eskuduntzak honako hauek dira:

a) Kideek nahiz beste pertsona batzuek Kontseiluari aurkeztu nahi dizkionen gai, txosten, proposamen edo dokumentu guztiak biltzea, ordenatzea eta prestatzea - Osoko Bilkurak gai horiek aztertzeke arauzko bidea hori baita-, eta gai horiek guztiak bideratzea.

b) Aztergai-zerrendan sartutako gaiei buruzko dokumentuak Kontseiluko kideentzat gordetzea, haiek dokumentuak aztertu nahiko balituzte ere.

c) Kontseiluak sor dezan edo bere esku daukan informazioa dagokien pertsonengana edo instantzietara bideratzea.

d) Osoko Bilkuraren bileretara joatea.

e) Osoko Bilkuraren bileretako aktak egitea, eta bilereetan hartutako erabakiak bideratzea.

f) Fede-emaile izatea, lehendakariaren oniritziak Kontseiluaren bileretako aktak eta erabakiak egiazta-

h) Cuantas otras funciones se le otorgue en la Ley, en el presente Reglamento, sean inherentes a su condición de Presidente/a o asuma por delegación del Pleno del Consejo y, en general, todas las que no se hallen atribuidas por este Reglamento a otros órganos.

CAPÍTULO VI  
LA VICEPRESIDENCIA

**Artículo 31.** - Vicepresidente/a.

La Vicepresidencia del Pleno del Consejo y de la Comisión Permanente Delegada corresponde al/la Viceconsejero/a de Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

**Artículo 32.** - Competencias.

En los casos de vacante, enfermedad o ausencia del/a Presidente/a, será sustituido en la totalidad de sus atribuciones por el/la Vicepresidente/a.

CAPÍTULO VII  
LA SECRETARÍA

**Artículo 33.** - Secretario/a.

1.- La Secretaría del Pleno del Consejo corresponde al vocal que actúa en representación del Departamento competente en materia de servicios sociales, que será designado por su Consejero/a.

En este caso el/la Secretario/a tendrá voz y voto.

2.- Actuará como Secretario/a de la Comisión Permanente Delegada, con voz pero sin voto, un/a funcionario/a de la Dirección de Bienestar Social del Gobierno Vasco, que será designado por su Director/a.

**Artículo 34.** - Competencias.

1.- El/La Secretario/a del Pleno del Consejo tiene atribuidas las siguientes competencias:

a) La recepción, ordenación y preparación del despacho de todos los asuntos, informes, propuestas o documentos que se desee presentar al Consejo, tanto por sus miembros como por terceras personas, siendo éste el cauce reglamentario para su tratamiento por el Pleno, y dar a todos ellos la tramitación que proceda.

b) Mantener a disposición de los/as miembros del Consejo para su examen, cuantos documentos se refieran a los asuntos incluidos en el orden del día.

c) Canalizar hacia las personas o instancias que proceda, la información que origine o de que disponga el Consejo.

d) Asistir a las sesiones del Pleno.

e) Levantar actas de las sesiones del Pleno y dar el curso correspondiente a los acuerdos que se adopten.

f) Actuar de fedatario/a, con el visto bueno del/la Presidente/a, certificando las actas y los acuerdos adopta-

tuz; akta onartu baino lehen egindako egiaztagirietan zirkunstantzia hori espreski adierazi behar da. Gordezko agindu zaizkion irizpenen, banakoen botoen eta bestelako dokumentuen egiaztagiriak ere egingo ditu, lehendakariaren oniritziaz.

g) Bere ardurapeko espedienteak eta artxiboa, eta bai dokumentuen sarrera eta irteera erregistroa, antolatzea eta zaintzea; eta Kontseiluko organoen eta kideen eskura jartzea, haiek aztertu nahiko balituzte ere.

h) Batzorde Iraunkor Delegatuari Kontseiluaren jardueri buruzko urteko memoria eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen egoerari buruzko urteko txostena prestatzeko beharrezkoak diren datu guztiak ematea.

i) Lehendakariak nahiz karguak berak agintzen dizkion kudeaketa- eta koordinazio-egintza guztiak betetzea.

2.- Batzorde Iraunkor Delegatuko idazkariak aurreko paragrafoan adierazi diren eskuduntza berdinak izango ditu, nahiz bere jardute-eremuari aplikatuko zaizkion eskuduntza horiek.

#### IV. TITULUA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA

##### 35. *artikulua.* - Prozedura.

Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua aldatzeko, honako prozedura honi jarraitu behar zaio:

a) Kontseiluaren Osoko Bilkurari dagokio ekimena, gutxienez kideen erdiak eskatuta.

b) Erregelamendua aldatzeko proposamenarekin batera, ordezkio testu arautu bat aurkeztu behar da, eta aldaketa egiteko argudioak ere adierazi egin behar dira.

c) Kontseiluko kideen gehiengo absolutuz onartu behar da Erregelamendua aldatzeko proposamena.

d) Erregelamendua aldatzeko erabakia gizarte zerbitzuetako eskuduntza daukan saileko sailburuari bidaliko zaio, hark erabakia onar dezan.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

##### *Bakarra.* - Funtzionamendu-arauak.

Batzorde Iraunkor Sektorialen eta Batzorde Tekniko Espezializatuen funtzionamendua organo eskudunak xedatutakoaren bidez arautuko da.

Funtzionamendu-arauak ezarri gabe baldin badaude, bidezko iritzitako aspektuetan Erregelamendu hau aplikatzea erabaki dezake organo eskudunak.

dos por el Consejo, haciendo constar expresamente, en su caso, que la certificación es anterior a la aprobación del acta correspondiente. También expedirá certificaciones, con el visto bueno del/la Presidente/a, de los dictámenes, votos particulares y otros documentos confiados a su custodia.

g) Organizar y custodiar los expedientes y el archivo a su cargo, así como el registro de entrada y salida de documentos, poniéndola a disposición de sus órganos y sus miembros cuando le sea requerida.

h) Facilitar todos los datos que sean oportunos para la elaboración por la Comisión Permanente Delegada de la memoria anual explicativa de las actividades del Consejo y del informe anual sobre el estado de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

i) Cuantos actos de gestión y coordinación le sean encomendados por el/la Presidente/a, o sean propios del cargo.

2.- El/la Secretario/a de la Comisión Permanente Delegada ejercerá las mismas atribuciones que las señaladas en el párrafo anterior, si bien adaptadas a su concreto ámbito de actuación.

#### TÍTULO IV LA MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO

##### *Artículo 35.* - Procedimiento.

La modificación del Reglamento de Funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social se ajustará al siguiente procedimiento:

a) La iniciativa corresponderá al Pleno del Consejo, a propuesta de, al menos, la mitad de sus miembros.

b) La propuesta de modificación deberá ir acompañada de un texto articulado alternativo y de la argumentación en que se fundamente.

c) La propuesta de modificación del Reglamento deberá aprobarse por la mayoría absoluta de los/as miembros del Consejo.

d) Del acuerdo de modificación se dará traslado al/la Consejero/a del Departamento competente en materia de servicios sociales, que la aprobará.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

##### *Única.* - Régimen de funcionamiento.

Las Comisiones Permanentes Sectoriales y las Comisiones Técnicas Especializadas se registrarán en cuanto a su funcionamiento por lo que disponga en este sentido el órgano competente.

En tanto en cuanto no se haya previsto dicho régimen, el órgano competente podrá acordar la aplicación de este Reglamento en aquellos aspectos que estime oportunos.